

2.8. Funtsezko jarduerak.

Gure proiektuan ezinbestekoa da argi eta zehatz definitzea zein harreman mota sortu nahi dugun gure enpresa eta bezeroen artean, hau da, nola konektatuko garen ikastetxeekin, irakasleekin eta familiekin. Harremana modu estrategikoan kudeatzea funtsezkoa da, balio-proposamena modu eraginkorrean eskaintzeko eta haurrek ur gehiago edateko helburua betetzeko.

Harremana pertsonala izan daiteke aurrez-aurreko elkarrizketen bidez, armairuaren erabilera azalduz eta irakasleei laguntza emanaz, ikastetxe bakoitzaren beharrei egokituta. Horrek konfiantza sortzen du eta sistemaren erabilera eraginkorra eta etengabea bermatzen du, haurrek ur gehiago edateko ohiturak garatzeko.

Harremanak automatizatuak izan daitezke web-aplikazioen, datu-plataformen edo erantzungailu automatikoen bidez, eta horrek aukera ematen du informazioa modu etengabe eta eraginkorrean eskaintzeko. Sistema automatikoek datuak modu objektiboan jasotzen eta interpretatzen laguntzen dute, haur bakoitzak ura edan duen ala ez erraz ezagutzeko, eta horrek irakasleei denbora aurrezteko aukera ematen die, proiektuaren jarraipen eta ebaluazioa hobetuz.

Gure enpresak harreman mota ezberdinak sor ditzake aldi berean, ikastetxeei eta familiei zerbitzu osoa eskaintzeko. Laguntza pertsonala eta arreta pertsonalizatua eskaintzen zaie behar bereziei, baita autozerbitzu eta zerbitzu automatizatuak ere bezeroek datuak modu autonomoan ikusi eta jarraipena egin dezaten, haurrek ura modu independentean edateko ohiturak sustatzeko.

Komunitateak sortzea funtsezkoa da, irakasle eta familiekin esperientziak eta aholkuak partekatu ditzaten, proiektuaren ikuspegi pedagogikoa zabaltzeko eta armairuaren erabilera hobetzeko. Baterako sorkuntzaren bidez, bezeroek eta gure taldeak elkarrekin hobekuntza eta berrikuntza ideiak garatzen dituzte, haurrek ur gehiago edateko ohiturak sustatuz.

Horrez gain, harreman horien kudeaketak aplikazio digitalaren integrazioa errazten du, gurasoek datuak modu errazean ikusi eta jarraipena egin dezaten, haurrek motibazio handiagoa izan dezaten eta irakasleek, ikastetxeek eta familiekin proiektuaren garapenean modu aktiboan parte hartu dezaten.

ITURRIAK →

STARTInnova. (s. f.). <https://www.startinnova.com/>

TuLibrodeFP, SLU. (s. f.). *IPE II 2025.*

<https://libreria.tulibrodefp.es/inicio/287-ipe-ii-2025.html>